

SEGURTASUN KAMERA HEGALARI KAMUFLATUA

6. KANALAK

Orain gure produktua saltzeko beharra dugu. Horretarako, segurtasun enpresak deitzeaz arduratuko gara, gure produktua eskaintzeko helburuarekin, eta beste enpresekin kontaktatuko dugu gure produktua enpresa gehiago ezagutu dezaten.

Kanal propioa izango dugu, hau da, ez gara beste enpresekin elkartuko gure produktua saltzeko, salduko duten bakarrak gu izango gara.

Webgune bat sortuko dugu, bertan gure produktuaren salmenta burutuko da, enpresaren informazioa eskainiko da, baita produktua eskuratu ahal izateko baimenak betetzeko ahalmena ere.

Ez dugu denda fisikorik jarriko, horrela, alferrikako gastuak saihestuko ditugu. Salmenta online izango da. Izan ere, kantitate handietan erosten dituzten enpreseei salduko dizkiogunez gure kamarak, ez du merezi denda fisikoa izatea. Horregatik, webgunea sortzea aukerarik hoberena dela erabaki dugu. Webgunean, bezeroek aukeratuko dute nahi duten produktu-kantitatea eta bertan aritzen diren langileek, berehala abisatuko gaituzte egindako eskariez. Informazio hori jasotzerakoan, gure enpresak berehala hasiko da eskaera prestatzen.

Produktua bukatuta dagoenean, kontratatutako garraio-enpresa batek banaketaz arduratuko da. Enpresa horrek TRANSPORTES BOCAYA SL du izena eta salgaien garraioa gu adierazitako bidetatik egingo du:

- Madril-Bartzelona- Gasteiz
- Madril-Valentzia-Sevila
- Madril-Santiago de la Compostela